

## DONOSTIAKO KUPULAK

Donostiak, harmoniaz betetako edertasunez hornituriko hiria izanik, badu ibiltariari deigarri gertatzen zaion aspektu bat. Bere kupulak dira.

Zaila da hirian zehar dabilenari zerurantz zuzentzen diren dorre horiek harridura ez sortzea, beren gandorrekin marrazten duten profil miresgarria ikustean.


Denak ederrak dira, denak desberdinak dira, eta bakoitzak bere nortasuna du. Bakoitzak bere eraikinaren arima adierazi nahi duela dirudi, eta, hilde batez, hiriaren gailurrean beste hiri berri bat sortu, elkarren artean forma eta erliebezko harremanetan solasteko.

Gehienak Erromantizismo garaikoak dira, baina bakoitzak, estilo desberdinen eraginak bereganatuz, bere nortasuna itxuratzten du.

Estilo guztietakoak daude. Batzuk handikiak eta aberatsak, besteak finak eta airosoak. Batzuk eraikinean tronu baten bezala finkatzen dira, besteak eraikin horien koroa edo diadema bihurtzen. Batzuk harrizkoak dira, besteak arbelezkoak edo adreiluzkoak. Batzuk argizkoak, besteak airezkoak... Denak edertasunez taxututakoak, denak bitxi izateko bokazioarekin.

Guztira ehun eta berrogeitik gora dira. Hemen bilduma bat aukeratu dut zuen atseginerako.


*Juan M<sup>a</sup> Arrizabalaga*



### **Igeldoko dorrea**

Dorre zaharra karlista gudatean suntsiturik gelditu ostean, Sociedad Monte Igueldok berri hau eraiki zuen 1912an turismoa indarberritzeko asmotan. Orain Kontxako badiaren babes eta zaindari dugu.






### **Foru Aldundiko Jauregia**

Luis Aladren eta José de Goikoak 1885ean estilo neoklasikoan eraikia, frantziar kutsuarekin noski. Bere marra klasikoak handikitasunez, orekaz eta harmoniaz janzten dute






### **Donostiako Kasino Handia**


Luis Aladren eta Morales del Riok dotorezia eta luxuaren eredu eraiki zuten 1887an kasino hau. Fatxadetako konposaketak eta kolore anitzeko zeramika-ukitu trebedun hareharriak halako dotorezia eta baretasuna eman diote eraikin honi. 1947an Udaletxe bihurtua.





### **Victoria Eugenia Antzokia**


Mende honen hasierako eklektizismoaren jarraile, Errenazimendutik ezaugarririk dotoreenak bereganatuz estilo neoplatereskoan eraiki zen 1912an bitxi hau. Dorreak, Salamankako bere senideak bezala, gailurreria zoragarri eta parekorik gabekoa du



### **Bellas Artes antzokia**


1914an inauguratu zen Donostiako eraikin hunkigarri hau. Zenbat kakahuete jan genituen filme zaharrak edo erdipurdiko antzerkiak ikusiz! Eta orain hor dago etorkizunari hil ala biziko irrikarekin heldu nahian. Aintzinako duintasuna eta nortasuna gorde bitza.





### **Arbideren dorreak**


Urumea ondoan zeuden jauregitxo hauek harriz harri Miramonera eramán zituen donostiarren gustu onak, espekulazioak eraikin handientzat lurra xixkatu zionean. Baina hor daude bere harrotasunean hiriarri maitekiro begira garai bateko hiri-arkitekturaren eredu.



**(Antzinako) Aurrezki Kutxa Munizipala**

Hareharrizko eraikin neogotiko liluragarri batentzat gailur duinak. Oraindik harri horietan darrai eguerdian eta arratsaldean ordulariaren karilioiak jotzen zizkigun abestien oihartzuna.






**“Itxas-ondo” txaleta (1932)**

Etxe batek jauregi izateko irrika duenean, leihoak apaindu, zutabe faltsuak jarri, pinakulu pinpirinak ertzetan kokatu, jarrera dotorean paratu... eta, hara hemen, jauregitxo bihurtuta.






### **Askatasunaren hiribidea 21(1921)**


Aingeruak jolastu nahi dutenean, hona etortzen dira eta gordeketan jarduten dute, eta bere oihuak txorien txorrotxioekin nahasten dira. Ramón Kortazarrek 1921ean bere izena daramakin Zabalgunean jasotako eraikinik ederrenetakoa.





### **Maria Cristina Hotela**


Charles Mewes arkitektoak 1912an eraiki zuen estilo eklektikoan nazioarteko hotel handien antzera, kanpoko dotorezia barruko luxuarekin bat eginez. Donostia erromantikoaren bihotza dugu Victoria Eugenia Antzokiarekin batera.



### **Londres eta Ingalaterrako Hotela**


Izenak adierazten duen bezala Luis Elizalde arkitektoak ingeles kutsu nabarmena eman zien hotel honen formei. Aristokraziak gogokoen zuen egoitza Donostian eta udaldiko abenturen gune famatua.





### **Guipuzcoano Bankoa**


Hiriak duen etxalderik onenetarikoaren gailur, termometro famatuaren buru, hiriko finantzen babes, eta solaserako topalekuaren lekuko ikusmiratzailea dugu dorre erromantiko hau.



**Larramendi kalea 3 (1908)**

Irtirin eta xarmant, kale osoari eransten dio bere nortasun aberatsa eta fina.






### **Ehunurteurrenaren Plaza 1 (1941)**

Etxe bat koroatzerakoan, bilatu dezaken diademarik ederrena ezarri zion Luis Elizalde arkitektoak begi bistan daukagun honi.






**Frantziako pasealekua 2 (1941)**


Mende honen bigarren erdian zaharberitze lanetan kupula galdu arren, badirudi bere forma klasikoan isla nabarmenago azaltzen dela.





**Prim kalea 21 (1922)**


Ortziari erronkari, harrokeriaz bere galantasuna hiritarrei aurkeztuz nabarmentzen du dorre ikusgarri honek zeruko paisaiaren perfila.



**Aguirre Miramón kalea 2 (1920)**


Dorrea etxeari itsatsi zaio ala etxeak, dorrearen nagusitasuna ikusirik, bere parean jarri nahi izan du? Dena dela, argi nabaritzen dugu haren nortasun airoso eta txairoa.





### **Egiatarren etxea (1868/1910)**


Itsasoaren aurrean, Alderdi ederreko eszenategitik amaigabeko horizontearen ikuskizuna eskaintzen diete bere biztanleei dorre honek.



### **San Martin kalea**


Oreka eta harmoniazko Donostiaren profila zerurantz zuzentzen diren holako kupulekin hornitzen da.





### **Kolonen Paseialekua 20**


Behin batean... bazen ipuin bateko dorre bat, mosaikoz eta kolore biziz egina. Eta sorginek hartu eta Donostiara ekarri zuten. Hara hemen.



### Okendo kalea 12

Zeru lainotsu eta betilunetik burua atera du lau haizetara bere irudi lerdena aurkeztu nahian. Eguzkia ateratzen denean, ordea, poesiaz betetako elkarriketak izango dituzte.






### **Elosegi Alkatearen kalea**

Euskal estiloak dotoretasunaren lurraldean leku izateko eskubidea aldarrikatuz bere formak moldatu eta hara nola atera duen burua eraikina duintasun apainez janzteko.






### **Dolorescho txaleta (1920)**

Alberto Matxinbarrenak ukitu arrotzen bidez dorrea etxebizitza bihurtu digu. Eta hor agertzen zaigu begiak zabalik, paisaiari so egongo balitz bezala.





### **Valencia Etxea**

Donostiako alderdi zaharreko paisaiak dorre honekin ematen zizun agur airosoa. Baina 1984ko egun ilun batean eguzkiak, zero alderako bidaia hasi zuenean ez zuen agur hori jaso. Kupula desagertu zen. Eta denok pixka bat tristeago gelditu ginen.